



2. saioa herritarrekin: akta

Eguna: 2014/03/29

Ordua: 10:00-14:15

Bertaratutakoak:

Izen-abizenak	1. SAIOA	2. SAIOA
Aitor Pedrejón		X
Alberto Iñurrategi	X	X
Angel Luis Dueñas	X	X
Argiñe Lopez	X	X
Asier Altuna		X
Bea Insa	X	
Beatriz Amilibia	X	
Enrique Santiago	X	
Estibaliz Gonzalez		X
Filipe Dominguez		X
Haritz Perez		X
Igor Carballo	X	X
Iker Etxarri	X	X
Imanol Carballo	X	X
Iñaki Zudaire	X	X
Ion Bravo Rodriguez	X	X
Itziar Muñiz	X	X
Izaskun Salaberria	X	X
Jasone Sisniega	X	X
Jose Inazio Murua	X	
Jose Luis Sanz	X	X
Jose Mendiña	X	X
Joserra Fachado	X	X
Josu Erauskin		X
Joxerra Isasa	X	X
Maidier Ziganda	X	X
Miguel Mari Torrea	X	X
Mikel Otaño	X	X
Oihane Oronoz	X	X
Ortzadar Labaien	X	X
Peio Sanz	X	X
Rafael Cospedal		X
Saioa Polo	X	X
Sebastian Gomez	X	X
Telmo Esnal		X
Unai Garin	X	



2. saioa herritarrekin: akta

Xabier Carballo	X	X
Xabier Pombo	X	X
Zigor Garcia	X	X
Goizargi Oruesagasti	X	X
Imanol Azkue	X	X

2. saiora bertaratu zirenak: **34 lagun**, 25 gizonetzko eta 9 emakumezko, horietatik **8 berriak ziren** (lehen saioan parte hartu ez zutenak).

SARRERA

Prozesuaren helburua eta saioen egitekoa azaldu dugu. Ondoren, prozesuan kontuan izan beharreko balioak errepasatu ditugu.

Honako kezka hauek azaldu dira:

- Coordinar las necesidades de cada distrito. Pueden ser elementos compartidos por varios distritos. Nos estamos centrando única y exclusivamente en un distrito. Hay algunos que son necesarios únicamente en San Pedro, pero general que tenga que ver con la cultura de Pasaia y luego ver cada elemento donde iría más adecuadamente.
- La mayoría se centra en Proisa.
- Cada distrito tiene su punto de identidad. Hay que ver eso para luego ver en conjunto. Y no nos centramos solo en Proisa, porque en el primer taller hablamos de la situación actual sociocultural en general.
- En el primer taller valoramos la situación actual, en qué punto estamos, las necesidades de espacio que hay y cómo se puede funcionar en los espacios actuales o futuros.

Girotzeko, lehenik eta behin pegatinak banatu ditugu. Pertsona hori aurkitu behar genuen, eta galdetu behar genion zer dakien ondo egiten.



2. saioa herritarrekin: akta



Gero, jirafa eta elefanteen dinamika egin dugu:





2. saioa herritarrekin: akta

Ondoren, hauek aipatu ditugu, dinamikaz:

- Ondo sentitu naiz. Ondo dago jolasa, daukazun tentsioa kentzeko, taldea ezagutu eta lasai eta eroso egoteko.
- Erdian egotea ez da oso eroso, bestearen paperean egoten ikasten duzu.
- Azkarra izaten, erne egoten ikasten da.
- Gaiztakeria pixka bat ateratzen zaigu, bestea harrapatzera joatea.
- Nork bere buruari barre egiteko balio du.
- Jendearekin erlazionatzen ikasten duzu, lasaitasuna lortzen duzu zure ikuspuntua emateko eta hasierako kontaktu hori apurtzeko eta elkar ezagutzeko balio izan du.
- Hasieran lotsa sentitu dut, gero, ondo pasa dut. Lotsa gainditzen ere ikasi behar da.
- Elkarlana garrantzitsua da, batek huts eginez gero, iruditxo ez da ateratzen.

Beharrak nola ase/ Cómo satisfacer las necesidades

Lau lantalde egin ditugu, jaiotze-urtaroaren arabera, eta lantalde bakoitzak lan bera egin du: beharretatik abiatuta, horiek nola ase daitezkeen proposatu (gaur egun azpiegitura baldin badago, jarri zein, eta baldintzarik behar bada ere bai; ez baldin badago, proposatu) eta pentsatu nola aurkez daitezkeen labur eta argi beraien proposamena.

UDABERRIA





2. saioa herritarrekin: akta

- Leku estalia behar da, eguraldi txarra egiten duenerako. Guraso eta haurrentzat batez ere. Aukera batzuk: ludoteka edo arkupea (komuna berrituta, lurra egokituta, nolabait itxita...); beste aukera bat: Proisak bete dezake leku hori.
- Beste behar bat: zinema egiteko, libre sortzeko → eszenatoki handia → PROISA da aukerarik egokiena.
- Kokapena: oso egokia da Proisa, frontoi ondoan, herri erdian, leku irekia... Herri-ekintzak egin daitezke: kontzertuak, afariak, panpinak...
- Beste behar batzuk gela txikiagoekin betetzea badago, agian bigarren solairuarekin; arautua izan beharko luke, jende eta ekintza desberdinetarako.
- Gauzak gordetzeko kontsigna bat izatea.

UDA



- Badaude behar orokor batzuk, gizarte-harremanetarako; eta gero, talde bakoitzak dituen beharrak.
- Espazio handi, argi, malgu eta estalia behar da: sortzeko, erakusteko, emanaldietarako, gizarte-erabilera duena (harremana), barra/taberna duena, eguraldi txarra dagoenerako ere baliagarria, kokapen egokia, elkarteek bilerak egiteko leku egokia... Proisak asetzen du lehen behar hori, eta beste espazio txikiagoen erabilera adostu egin beharko da. Saiatu behar dugu guztion artean adosten partekatze modua; partekatze hori aberasgarria izan daiteke, elkarrekin egoitea eta aritzea ona delako.
- Udalak baditu beste espazio batzuk: gimnasioa... Horien erabilpena erraztu egin behar da, izapideak arindu. Behar batzuk ase ditzakete.
- Castelao elkarteari dagokionez, dokumentazio handia eta asko badago, eta ez daukate non jaso. San Pedroko ondare historikoa mantendu egin behar da.



2. saioa herritarrekin: akta

- Espazioen kudeaketa aurrerago zehaztuko da.

UDAZKENA



- Proisa behar dugu, oso argi daukagu, behar delako espazio handi bat, estalia, hainbat ekitaldi egiteko (kontzertuak, emanaldiak, batzarrak, herri-bazkariak, erakusketak, haurrentzako aisialdi-ekintzak...) eta espazio handi horrek balio dezake sormen-fabrika bezala. Eszenografia edo atrezzo handiak egiteko, herri-batzarretarako...
- Beste espazio txikiagoak behar dira, formatu txikiagoak: Erti edo gimnasioa, Proisako 2. pisua... Arte plastikoetarako tailerrak beharko lirateke; beste lokal bat hosgabetua musikarako; eta beste bat antzerkirako: udal-aretoak balio lezake, edo Proisan bertan izan daiteke.
- Proisak biltegi bat beharko luke, gauzak gordetzeko.
- Hurrengo bilerarako: beharrezkoa da espazioen koordinazioa, espazio publiko hauen erabileraren zorrotasunarekin bukatzea: Proisak autogestionatua beharko luke izan; Ertiren erabilera monopolizatuarekin bukatu behar da, batzuek ez daukatelako aukerarik erabiltzeko.

NEGUA



2. saioa herritarrekin: akta



- Hainbat espazio identifikatu dugu.
- Beharrezkoa da estalpe txiki bat, irekia, eta beste bat itxia, eszenatoki handi batekin, balioaniztuna izan behar du, harremanak errazteko; gela itxiak ere izan beharko lituzkete, bulegoetarako, gauzak gordetzeko biltegia; logela edo apartamentu txiki bat ere bai.
- Hainbat leku identifikatu dituzte: Ondartxo, Erti, Proisa, Belasko, soto edo etxabe pribatuak. Baina horietako batzuk ez daude erabilgarri (pribatuak direlako edo gaur egun badaukatelako erabileraren bat). Erti, Proisa eta alkateordetza erabil daitezke gaur egun, baina erabilera aztertu eta kudeaketaz hausnartu beharra dago.
- Beste puntu batzuk: kudeaketa, diru-laguntzen kudeaketa, aholkularitza, nola erabili espazioak emanaldien truke...
- Hausnarketa hau aurrera eraman ahal izateko, konpromiso sendoa eta sinatua eskatzen dute.
- Berrikusi egin behar da aisialdian zer eta non egin daitezkeen gauza guztiak.

Lantalde guztietako ordezkariak erdian jarri dira eta haien taldeetako ondorioak aurkeztu dituzte. Ikusi da badaudela antzeko puntuak, behin eta berriz errepikatzen direnak talde guztietan, batik bat espazio handi, zabal eta irekiari dagokiona (Proisa) eta gaur egun eskura dauden baliabide batzuk erabiltzeko erraztasun handiagoak emateari dagokiona.

ADOSTASUNAK

- **Leku estalia, irekia, argia, balioaniztuna, eszenatoki eta taberna batekin, edozeinentzako zabalik (baita haurrentzako ere). Proisa edo Proisaren antzekoa leku berean. 2. solairuan edo goian espazio txikiagoak, baina irekiak, ez txoko parti-**



2. saioa herritarrekin: akta

kularrak. Biltegia...

- Gaur egun Udalak dauzkan lokalen kudeaketa eta erabilera aldatu beharra dago, beste behar batzuk ase ahal izateko.

Ondoren, aukera eman zaie guztiei, erdian jarri eta hitz egiteko.



Aurkezpenaren ondoren aipatu direnak (adostasunik bilatu gabe):

- **San Pedroko lokal edo soto pribatuak.** Zer asmo dago? Behar edo gabezia batzuk asetzeko balioko lukete.
- Hiru saio hauek dira askatzeko eta jasotzeko, ikuspegi zabalago batetik ikusteko, **hau ez da hemen amaitzen**, behar orokor horiek nola ase daitezkeen. Proi-sak zer beharko lukeen izan, gero lantalde bat sortu beharko da, hori bultzatzeko, beste esperientzia batzuk ezagutzeko...
- Espazio handi horretan sartu behar dute umeek eta ume koskorrek, **adin desberdinen artekoen harremanetarako**, hor, frontoiaren ondoan itsatsita dagoen horretan.



2. saioa herritarrekin: akta

- Tabernena oso inportantea, **kafe-antzokiaren formatua**. Kultura bizi egiten da, eta tabernak aukera ematen du harremanetarako, elkargunea izaten da, kultur ekintzaren ondoren elkarrekin jarraitzeko aukera ematen duelako...
- Lokal edo soto pribatuak direla-eta, bere enpresa San Pedron kokatu nahi luke. Pribatua izan, publikoa izan..., **herriarentzat onura ekartzen duen enpresa hona erakartzea inportantea** litzateke. Nahiz eta pribatua izan eta dirua ateratzeko, dinamikak eragiten dira, giroa sortzen da...
- **Taberna beti irekita?** Hori ikusiko litzateke... Kulturgunea... Bizirik mantentzeko, tabernak dirua ematen du.
- Hainbat lagunek esan dute **Proisa beharrezkoa dela**. Eraikinak balio historiko handia dauka, eta balio hori aitortu egin behar zaio.
- Ez dago dirurik, baina Euskal Herrian zehar badaude gaztetxeak legezkoak ez direnak, beste batzuk udal-eraikinetan daude... **Eraikin hau mantendu egin behar da**, eta horretarako beharrezkoa da borondate politikoa. Eraikina zutik mantentzen bada, konponduko dira arazo guztiak.
- Behar nagusia da **Proisa eraikinak sortu duen herrigintza-taldearen bizirau-pena bermatzea**, hori ziurtatzea etorkizunean.
- San Pedron badago aukera hori, **Proisa da**. Badirudi izena erabiltzeko beldurrez ari garela hemen, eta ozen esan behar da, garbi.
- Espazioaren erabilera bermatzen duen **bideragarritasun ekonomikoaz** ere hitz egin behar da. Segurtasunaren oztopoa dauka.
- Oso ondo dago Proisari buruz hitz egitea, baina Udalak **zer baliabide** ditu hori aurrera eramateko?
- Talde-lanetik etorri naiz gustura, ideia garbi eta positibo batekin, eta ikusi dut beste taldeetan ere antzeko ideiak irten direla. Orain galtzen ari naiz. **Gera gaitzen sentipen horrekin, adostasunarekin: espazio irekia, argia behar da**.
- Inportantea da zerekin aterako garen. **Proisa bezalako leku bat** behar dugu.
- Proisak jarraitzen badu, **honek (Udal Aretoak) hemen zentzu gutxi** izango du. Contadores bezalako leku bat jar daiteke, gazteak hartzeko, eta lokal horiekin gastu batzuk ordaintzeko.
- **Bi ikuspuntu** edo gehiago daude; besteen ideia ulertzeko ahalegina egin behar da, eta animatu.
- Proisa aipatu da, azpiegitura bezala. **Espazioak Proisa izan behar du**.
- **Eraikin barruko banaketa** ez dago zertan banan-banan aipatu edo zerrendatu (biltegia, dutxa...). Aurrerago zehaztuko dugu zer behar zehatz dauden.
- **Espazioa badago**, eta **Proisa da**. Talde guztiek adostu dute Proisa beharrezkoa dela.
- **Proisaren proiektua zehaztu** behar dugu guztion artean: banaketa, kudeaketa... Horren guztiaren aurrekontua egin, eta diru-laguntzak bilatu, eta Talde Eragile bat sortu.
- Se necesita todo eso, pero que **no nos centremos solo en el edificio Proisa** tal y como está en este momento. Es más fácil ver que es lo que necesita y en base a eso hacer el diseño. Es normal el cariño emocional respecto al edificio,



2. saioa herritarrekin: akta

pero es importante saber que es **económicamente más viable**. Igual es mejor hacer un nuevo edificio que mantenerlo.

- Si de verdad el Ayuntamiento. quiere hacer algo, debería de **meter en ordenación Proisa**.
- Si hay que **cambiar las Normas Subsidiarias**, es necesario tomar en cuenta al resto de la ciudadanía.
- Estamos leyendo las conclusiones de este grupo. **La gran mayoría queremos un espacio ahí**.
- Proisa **no se puede utilizar** legalmente.
- Con un **presupuesto menor** se podría garantizar el uso del local en la parte inferior.
- **Compromiso del Equipo de Gobierno**: que tuviese en cuenta todo, y que no se hablase sólo de un proyecto determinado.
- Hay que **buscar consensos**, ir de manera consensuada, seguir avanzando.

Amaitzeko, **bi ideia edo adostasun nagusiak** azpimarratu nahi izan ditugu berriz ere; uneko ekarpenak jaso ondoren, hurrengo bileran oniritzia jasotzeko. Hauek dira:

- **Leku estalia, irekia, argia, balioaniztuna, eszenatokiarekin eta taberna batekin, guztientzako irekia (baita haurrentzako ere). Proisa edo Proisaren antzekoa, leku berean. 2. solairuan edo goian espazio txikiagoak, baina irekiak, ez txoko partikularrak. Biltegia...**
- **Gaur egun Udalak dauzkan lokalen kudeaketa eta erabilera aldatu behar dira, beste behar batzuk ase ahal izateko.**